

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Lurrikarak



ARITZ GALARRAGA

Notizia zen: non jazo dira 1980tik hona Frantziako lurrikara garrantzitsuenak. Egin baitu dardara, orain gutxi, Ardèche inguruak. Richter eskalan 5'1 gradu. Zaurituak, kalte materialak, zentral nuklear baten gelditzea. Panika orokorra. Pixkanaka, itzuli dira ur erradiaktiboak bere bidera. Baina 1980tik hona Richter eskalan 5 gradutik gora Frantzia erregistratu den bederatzigarren lurrikara izan da, seigarren handiena. Handi-handiena, guztietan, Sant Esteve del Monestir udalerrian gertatu zena, Ekialdeko Pirinioak departamenduan, Ipar Katalunian alegia: 1996ko otsailaren 18an, 5'6 gradu. Gertukoena, geografikoki eta sentimentalki, Hazparne inguruan jaso zen, 4'7 gradu, 1984ko otsailaren 25ean. 600dik gora omen dira urtero. 10-15 sentitzen. Horiek 1980tik hona Frantzia metropolitarrako lurrikara garrantzitsuenak.

Kurioski, 1980tik. Zutabe hauek sinatzen dituen jai zen urte-tik. 1988ko uda, 9'2 gradu, gurasoak banandu berri, herri zaharretik herri berrira egin genuen, amarekin, gero elkartzeko, denbora batera, berriz aitarekin; bigarren aldiz jaiotzea bezalakoa, sekula aski eskertzen jakingo ez dudana jaiotza berri bat -auskalo bestela zer izango zen nitaz-. 2006ko iraila, 8'8 gradu, betiko bikotekidearekin, bizitza komunari, denboran atzera abiatutakoari, zentzu berri bat eman genion, herrialde zaharretik herrialde berrira egin genuen; orain naizen gisakoa bilakatu nau esperientzia horrek -ados, ez da beste munduko ezer ere-, ondu nau, eman dit heldutasuna, bizitza bizitzen hasteko bultzada beharrezkoa. 2019ko azaroa, 6'7 gradu, etxera buelta egin nuen, herrialde berritik herrialde zaharrera, herri berrira, are herri berriago batera; momentuz bakarrik -atzera begiratu, eta ez dit inork jarraitu-, momentuz ordezkotik, momentuz proba gisa. Inolako sismografo ofizialek jaso ez dituen lurrikarak. Erreplikak espero dira. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"IKERLARIAK 'ZERO PUNTUA' MARKATZEN ARI DIRA, KONTROLAREN ABIAPUNTUA DA HAU"

ERRAUSTEGIAREN AURKAKO MUGIMENDUA

"Holandako ikerlari independenteek Zubietako Erraustegiaren kutsadura neurtzeko diru biltzea egin du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. 13.000 euro biltzea zuen helburu eta azaroaren 9ra arte 26.384 euro bilduak zituzten. Bularreko esnearen kontrol lanak ere abiatu dira; zeregin horretarako, Usurbil, Lasarte-Oria eta Andoaingo 39 emakumek eskuabaltasunez eskaini dituzte beren laginak.

NOAUA (2019/11/15)

